

‘EUSKAL HERRITARRAK GARA’

Udalbiltzaren Nazio Gobernuaren ebazpena

Aturritik Ebrora eta Enkarterrietatik Auñamendira, Pirinioetako bi aldeetan 686 udalerrietan bizi garen 3 milioi euskal herritarren gehiengoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, euskal herritar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politiko barne, Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik eratorzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herri osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estaturik gabeko herri bat da, eta gu, euskal herritarrok, gure borondatearen gainera ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure udalerrak 2 estatuetan sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Aquitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Elkargoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da euskal herritarrek libre eta demokratikoki erabaki egin duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean, adibidez, horren lekukoa da 1931. urteko Lizarrako estatutua, 1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua edo Ipar Euskal Herrian 1999. urtean Euskal Departamenduaren alde egindako aldarrikapen eta mobilizazioak.

XXI. mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugarri esanguratsua izan zen.

2014. urte honetan abagune berezia ari gara bizitzen. Begi bistan daude kontrako eta aldeko faktoreak. Alde batetik, nabaria da Espainia eta Frantziaren ezezko iraunkorra. Baina han daude ere Europako estatu berrien sorrera, Catalunya eta Eskoziaren autodeterminaziorako erreferendumak, “Gure esku dago” bezala Euskal Herrian sortzen ari diren herri ekimen arrakastatsu berriak, edo itxaropentsuak izatera bultzatzen gaituen independentziari buruzko Etxarri Aranatz-ko herri kontsulta.

Testuinguru horretan, Udalbiltzak bere gain hartzen du Euskal Herriaren eta euskal herritartasunaren aitortza bultzatzeko konpromisoa, eta bere hautetsiei eta herritar guztiei dei egiten die hemendik aurrera abian jarriko ditugun lan-ildoekin bat egitera:

1.- Udalbiltzak euskal sinboloen erabilera bultzatuko du. Ereku instituzionalari dagokionez, Euskal Herriaren izatea aintzat hartzen duten bulego-paperak,

seinalizazioa eta irudi korporatiboa sustatuko ditu udaletxeetan. Era berean, behar diren baliabideak jarriko ditu herritarren esku, haien nortasun nazionala agerian eta modu publikoan adieraz dezaten hala nahi badute. Beraz, garena eta sentitzen duguna ikurren bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori, horretarako kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan euskal ikurrak jarri.

2.- Udalbiltzak Interneteko domeinu propioen erabilera sustatuko du, Euskal Herriko udalen web orrietan .eus-en erabilera proposatuz, eta eremu pribatua domeinua zabaltzeko xedearekin zenbat ekimen gauzatuz.

3.- Udalbiltzak euskal herritartasuna publikoki adieraziko duen agiri ofizial bat sortzea bultzatuko du. Aipatu ekimena, herritarren atxikimendu librean oinarrituko da eta Euskal Herriaren kultura, hizkuntza eta identitate espresio anitzekiko errespetuzko jarrera mantenduko du. Horretarako, instituzio nazional hau lanean ari da dagoeneko horren tramitazioan eta, halaber, erabilera eta bideragarritasuna bermatzeko behar dena egiten.

Euskal Herrian, 2014ko martxoaren 14an